

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3732

HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: 2017ko ekainaren 22koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, «Donostialdeko Metroko Mirakontxa-Aaso tartea eraikitzekeo proiektuak» eragiten dien ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeko dena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jauriaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada.

Era horretako hutsak aurkitu dira Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2017ko ekainaren 22ko ebazpenean, zeinaren bidez iragartzen baita «Donostialdeko Metroko Mirakontxa-Easo tartea eraikitzekeo proiektuak» eragiten dien ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeko dena (2017ko uztailaren 5eko EHAA, 127. zk.). Horrenbestez, akatsok zuzendu behar dira hemen.

Laburpenean eta ebazpenaren tituluan, euskarazko bertsioan, 2017/127 Laburpena (4/2) eta 2017/3391 (4/1) orrialdeetan, honela dio:

«EBAZPENA, 2017ko ekainaren 22koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, "Donostialdeko Metroko Mirakontxa-Aaso tartea eraikitzekeo proiektuak" eragiten dien ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeko dena.»

Eta honela esan behar du:

«EBAZPENA, 2017ko ekainaren 22koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, "Donostialdeko Metroko Mirakontxa-Easo tartea eraikitzekeo proiektuak" eragiten dien ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzeko dena.»

Ebazpenaren testuan, 2017/3391 (4/2) orrialdean, honela dio:

«Organo honek eskumena du Gobernu Kontseilurako gordeta ez dauden trenbide-sareko proiektuak idatzi eta onartzeko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari buruzko eta horren egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 174/2017 Dekretuaren 22.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikulua arabera, trenbide-linea berriak jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta, onespren horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta daudenean, onesprenak berekin dakar –nahitaezko desjabetzearen eskakizunen eta prozeduraren ondorioetarako proiektu bera eta horren gaineko aldaketak herri-onurakotzat edo gizarte-interesekotzat direla adieraztea, okupatzeko beharra eta proiektuarekin batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla aitortzea.»

Eta honela esan behar du:

«Organo honek eskumena du Gobernu Kontseilurako gordeta ez dauden garraio-azpiegituren arloko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze-espeditenteak izapidetzeko,

betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari buruzko eta horren egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 174/2017 Dekretuaren 22.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikulua arabera, trenbide-linea berriak jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta, onespenez horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta daudenean, onespenez berekin dakar –nahitaezko desjabetzearen eskakizunen eta prozeduraren ondorioetarako– proiektua bera eta horren gaineko aldaketak herri-onurakotzat edo gizarte-interesekotzat direla adieraztea, okupatzeko beharra eta proiektuarekin batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla aitortzea.»